

**EUSKADIKO LAN SOZIETATEAK-ASLE ELKARTEAREN BATZAR  
OROKORRARI AMAIERA / CLAUSURA DE LA ASAMBLEA  
GENERAL DE ASLE, AGRUPACIÓN DE SOCIEDADES LABORALES  
DE EUSKADI**

2020-10-28 Vitoria-Gasteiz 28-10-2020

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Sailburu, herri agintari eta ordezkariok, Lan Sozietateetako ordezkariok, jaun andreok, egun on. Eskerrik asko zuen gonbidapenarengatik eta Batzar Nagusi honen amaieran parte hartzeko eskaini didazuen aukerarengatik.

Ondo dakizuenez, bizi dugun egoera oso larria da:

- Lehendabizi koronabirusak pertsonen osasuna kolokan jartzen duelako;
- Bigarrenik, gure ekonomiaren eta enpleguaren etorkizuna zalantzan jartzen duelako; eta
- Hirugarrenik, eta hau azpimarratu nahi dut gaurkoan bereziki, gure gizarte bititza eta harremanen eredua erabat BALDINTZATZEN duelako.

Argi dago pandemiak, eta honi aurre egiteko neurriek, gure eguneroko bizimodua aldatzarekin batera, AZKARTU egin dituztela aurretiaz abian ziren hainbat gizarte eraldaketa. Tarteko eraldaketa sozio-sanitarioa, ekologiko-energetikoa edo teknologiko-digitala.

El coronavirus está condicionando y va a seguir condicionando nuestra vida. Desde la perspectiva de la salud nos encontramos en emergencia sanitaria. Desde la perspectiva económica y social estamos condicionados por una pandemia que limita nuestra actividad y nuestras capacidades.

En este contexto, las sociedades laborales y empresas participadas ofrecéis un modelo de referencia para los nuevos tiempos que vivimos y vamos a vivir.

ASLE representa un modelo de referencia de “empresa con valores” para el nuevo modelo de empresa inclusiva y participativa que debemos impulsar.

Egoera honen aurrean, “Bizi Berri” izena jarri diogu aurrera egiteko planari. Izenak egiten du, kasu honetan, IZANA.

Gure bizitzaren ohitura eta harremanen kultura aldatze prozesu honetan, hainbat erronka berriei aurre egin beharrean aurkitzen gara, gizarte eraldaketa honen aitzindaritzan kokatuz.

Lan Sozietateak “BIZI BERRI” horrentzako eredu bat eskaintzen duzue. Azken finean, zuen eredia gardena da eta parte hartzeari irekita dago; zuen eredia sustraituta dago eta gizarte eraldaketarekin konpromisoa erakusten du. Zuen ereduaren balioak erreferentea dira GIZARTE ERALDAKETAREN aitzindaritzan kokatzeko.

Con vuestra actividad, y en este encuentro, presentáis un modelo de “EMPRESA CON VALORES”. Un modelo que nos ayuda a AVANZAR en los retos de transformación social. Una transformación que debe pivotar sobre un modelo de referencia en valores, compromiso, participación y responsabilidad social. Esto es, EL MODELO de las sociedades laborales.

El reto que afrontamos es una oportunidad. Una oportunidad para abrir la empresa a la participación, alentar la implicación de las trabajadoras y trabajadores en un proyecto común.

Este año tan difícil desde el punto de vista sanitario, económico, social y emocional; hablamos más de valores que de resultados. Hablamos MÁS de cooperación, colaboración y trabajo en común. Hablamos, en definitiva, de la raíz de las sociedades y empresas agrupadas en ASLE.

Euskadi es pionera en una forma de entender la empresa como PROYECTO común y compartido. Una empresa comprometida, al mismo tiempo, con su entorno y los retos globales. Una empresa arraigada en lo local y que actúa, a la vez, con visión global.

Así, ASLE desarrolla su misión ALINEADA con los Objetivos de Desarrollo Sostenible de Naciones Unidas. Compartimos este horizonte y este modelo.

Zuen eredia abantaila bat da bizi dugun momentu zail hauetan. Abantaila lankidetzara, parte hartzeara, konpromisoa eta erantzukizuna islatzen duzuelako. Horiek dira egoerak eskatzen dizkigun BALIOAK.

Garai berri baten aurrean gaude, ERALDAKETA bultzatu behar dugu eta bide honetan ZUEN ibilbidea eta eskarmentua ezinbestekoak zaizkigu. Zuen eredia, GURE eredia da.

Garapen ekonomikoa eta gizartearen garapena uztartu behar dugu. Hori da gaur partekatu nahi dugun ERRONKA.

Este es el reto en un tiempo de transformación del modelo económico y del modelo social. Es momento de esfuerzo compartido; poniendo a la persona en el CENTRO de nuestra acción. Es momento de transformar la empresa, impulsando un modelo más participativo, inclusivo y responsable con el entorno y los retos globales.

El tiempo que vivimos nos anima a impulsar la CULTURA DE LA COOPERACIÓN Y LA COLABORACIÓN que representa ASLE.

Pertsona ardatz hartuta, lankidetzaren eta auzolanaren garaia da. Garai berri honen aurrean, ASLE-ren eredia eta ekarpena eskertzen eta aitortzen ditugu.

Eskerrik asko eta egun ona izan dezazuela.